

**EUSKALTZAINDIARI BURUZKO
BERRI JAKINGARRIAK**

Azken hilabete luzeetan zehar Euskaltzaindiari buruz zenbait berri desatsegin komunikabideetan agertu ondoren, joan zen martxoaren 28an berri pozgarri bat irakurri genuen: “*Urgazle berriei diplomak eta Euskaltzaindiaren ikurra emateko ekitaldia*”. Horrela, zenbait hilabete lehenago (2013an) euskaltzain urgazle izendatuei ezaugarriak banatu zitzaizkien Bilboko egoitzan jendaurrean eginiko ekitaldi eder batean.

Horrelako ekitaldietan ohikoa denez, komunikabidetako ordezkari ugari izan genituen bertan. Euskal Telebistak ere parte hartu zuen. Niri ezaugarriak (diploma eta ikurra) Kaxildo Alkortari ematea suertatu zitzaidan, eta alfabetikoki lehena zenez, telebistak eskaintako ekitaldiaren laburpenean jendaurrean agertzeko zoria izan nuen.

Hori zela eta, hainbatek itaundu didate ea zer egiten nuen ekitaldi horretan edota zertara zetorren telebistako nire agerraldi hura. Hori horrela, eta gainera ekitaldi horretan nire zenbait adiskide izendatuak izan zirenez, Euskaltzaindia nola antolatua dugun eskaini nahi dizuet labur-labur lerro hauetan atsegin izango duzuelakoan.

1. Euskaltzaindiaren sorrera eta partaideak¹

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimenez, Joxme Elgezabal diputatuak eskatuta, Eusko Ikaskuntzak, 1918an Oñatiko Unibertsitate zaharrean egin zuen Biltzar Nagusian erabaki zuen Euskararen Akademia (Euskaltzaindia) sortzea. Akademia berriaren zereginak *‘euskara ikertzea eta babestea edo zaintzea izanik*, bi sail nagusi izango zituela ere erabaki zuten, hots, *Iker saila* eta *Jagon saila*.

Ekitaldi hartan aukeratu zituzten, baita ere, Erakunde berria bideratzeko ardura hartuko zuten lehen lau kideak: Resurrección Maria Azkue, Arturo Campi3n, Luis Eleizalde eta Julio Urkixo. Handik laster, 1918ko azaroan, arautegiaren auzia bukatutzat jotzen ondoren, beste zortzi kide berri hautatu zituzten. Hala ere, heriotzak eta uko-egiteak tarteko zirela ez zen osatu taldea 1920ra arte. Honako hauek izan ziren lehen hamabi euskaltzainak: Resurrección Maria Azkue, Arturo Campi3n, Luis Eleizalde, Julio Urkixo, Ramon Intzagarai, Pierre Lhalde, Juan Batista Eguskitza, Raimundo Olabide, Martin Landerrete, George Laconbe, Sebero Altube, Miguel Olasagarre (Damaso Intza).

Euskaltzain oso horiekin batera, 3 euskaltzain ohorezko eta 44 euskaltzain urgazle edo laguntzaile ere aukeratu zituzten. Euskaltzaindiak bere historia barruko ibilbide luzean 90 euskaltzain oso, 82 ohorezko eta 329 urgazle izan ditu.

Gerrateak hankaz gora jarri zituen Euskaltzaindia eta beraren lana, hainbatek ihes egin beharra izan baitzuten. Gerra ondoko garai ilunetako gorabehera estu eta larriak gainditu ondoren urak bideratu ahal izan ziren, eta Euskaltzaindia berriro ere osatze bidean jarri zen. Horrela, 1941eko apirilaren 28an zortzi euskaltzain izendatu zituzten batera Erakundeari indar berria emanez, eta 1949ko irailaren 30ean beste sei. Pixkanaka 24 euskaltzain osoz osatutako Erakundea izatera

¹ Datu zehatzagoak: Joan Mari Torrealdai eta Imanol Murua Uria, EUSKALTZAINDIA (2009)

EUSKALTZAINDIARI BURUZKO JAKINGARRIAK

<p>1</p> <p>R.M. Azkue</p> <p>↓</p> <p>K. Mitxelena</p> <p>↓</p> <p>I. Sarasola</p>	<p>2</p> <p>L. Eleizalde</p> <p>↓</p> <p>K. Etxegarai</p> <p>↓</p> <p>B. Etxegarai</p> <p>↓</p> <p>Orixe</p> <p>↓</p> <p>J.M. Satrustegi</p> <p>↓</p> <p>J.L. Lizundia</p> <p>↓</p> <p>J. Kaltzakorta</p>	<p>3</p> <p>J. Urkixo</p> <p>↓</p> <p>L. Villasante</p> <p>↓</p> <p>A. Eguzkitza</p> <p>↓</p> <p>A. Arejita</p>	<p>4</p> <p>A. Campion</p> <p>↓</p> <p>J.C. Guerra</p> <p>↓</p> <p>I.M. Etxaide</p> <p>↓</p> <p>P. Larzabal</p> <p>↓</p> <p>Tx. Peillen</p> <p>↓</p> <p>X. Bidegain</p>	<p>5</p> <p>Tx. Agirre</p> <p>↓</p> <p>S. Altube</p> <p>↓</p> <p>P. Zamarripa</p> <p>↓</p> <p>J. Gorostiaga</p> <p>↓</p> <p>J.A. Arana</p>	<p>6</p> <p>P. Broussain</p> <p>↓</p> <p>G. Lacombe</p> <p>↓</p> <p>P. Lafitte</p> <p>↓</p> <p>P. Xarriton</p>
<p>7</p> <p>B. Adema</p> <p>↓</p> <p>M. Landerretxe</p> <p>↓</p> <p>J. Elizalde</p> <p>↓</p> <p>J. Diharce</p>	<p>8</p> <p>R. Intzagarai</p> <p>↓</p> <p>M. Lekuona</p> <p>↓</p> <p>J.M. Lekuona</p> <p>↓</p> <p>B. Atxaga</p>	<p>9</p> <p>J. Agerre</p> <p>↓</p> <p>D. Intza</p> <p>↓</p> <p>E. Espartza</p> <p>↓</p> <p>J.M. Seminario de Rojas</p> <p>↓</p> <p>P. Zabaleta</p>	<p>10</p> <p>J.B. Eguskitza</p> <p>↓</p> <p>N. Oleaga</p> <p>↓</p> <p>E. Erkiaga</p> <p>↓</p> <p>X. Kintana</p>	<p>11</p> <p>R. Olabide</p> <p>↓</p> <p>A. Irigarai</p> <p>↓</p> <p>P. Salaburu</p>	<p>12</p> <p>P. Lhande</p> <p>↓</p> <p>G. Epherre</p> <p>↓</p> <p>J.L. Davant</p> <p>↓</p> <p>J.B. Coyos</p>
<p>13</p> <p>J. Irigoien</p> <p>↓</p> <p>F. Krutwig</p> <p>↓</p> <p>A. Iñigo</p>	<p>14</p> <p>R. Lafon</p> <p>↓</p> <p>E. Larre</p>	<p>15</p> <p>J. Saint-Pierre</p> <p>↓</p> <p>Oxobi</p> <p>↓</p> <p>P. Narbaitz</p> <p>↓</p> <p>J. Haritxelhar</p>	<p>16</p> <p>L. Dassance</p> <p>↓</p> <p>J. Hiriart-Urruti</p> <p>↓</p> <p>B. Oihartzabal</p>	<p>17</p> <p>J.M. Lojendio</p> <p>↓</p> <p>P. Altuna</p> <p>↓</p> <p>M. Zalbide</p>	<p>18</p> <p>A. Arrue</p> <p>↓</p> <p>H. Knörr</p> <p>↓</p> <p>P. Uribarren</p>
<p>19</p> <p>L. Akesolo</p> <p>↓</p> <p>J. San Martin</p> <p>↓</p> <p>A.M. Toledo</p>	<p>20</p> <p>A. Irigoien</p> <p>↓</p> <p>A. Urrutia</p>	<p>21</p> <p>A.M. Labaien</p> <p>↓</p> <p>P. Goenaga</p>	<p>22</p> <p>A. Zabala</p>	<p>23</p> <p>J.M. Barandiaran</p> <p>↓</p> <p>M. Azkarate</p>	<p>24</p> <p>P. Iraizotz</p> <p>↓</p> <p>P. Ondarra</p> <p>↓</p> <p>P. Salaberri</p>
<p>25</p> <p>A. Arkotxa</p>	<p>26</p> <p>A. Sagarna</p>	<p>27</p> <p>S. Aleman</p>	<p>28</p> <p>J. Lakarra</p>	<p>29</p> <p>J.M. Torrealdai</p>	<p>30</p> <p>L. Oñederra</p>

heldu zen. Herrialde eta euskalki guztietako kideek osatu izan dute Euskaltzaindia.

2005ean, gogoeta sakona egin ondoren, finkatu ziren gaur egun indarrean diren estatutuak. Bertan zenbait aldaketa onartu ziren Erakundea aro berrietara egokitzeko ahaleginetan. Horrela, gaur egun, hogeita lau Euskaltzain osoz, euskaltzain emerituz, euskaltzain urgazlez eta euskaltzain ohorezkoz osatua dugu Euskaltzaindia. Euskaltzain urgazle eta ohorezkoentzat ez da kopuru-mugarik. Estatutuetan egindako aldaketarik handiena ‘emerituak’ sortzea izan zen.

Estatutu eta barne erregeletan aldika-aldika (bi urterik behin) euskaltzain urgazleak eta ohorezkoak izendatzea ere arautu zen. Horretan gogoan izan beharreko irizpideak ere argi jarri ziren:

- Bi euskaltzainek idatziz, merezimenduak aipatuz proposatua izan ondoren gehiago osoz onartuak izatea (Arautegiko. 37 eta 38. art.).

- Zeintzuk diren hautagaien ezaugarriak ere zehazten da: *“Euskaltzain urgazlegaiak orobat euskalgintzan eta euskalaritzan ezagunak eta lan eginak izango dira, bai idazle hautak edo euskararen jagoletzan nabarmenduak... Urgazleetarik batzuk atzerritarrak izan daitezke, aukeratuak izateko nazioarteko mailan akademia gaietan eskaini dituzten lan aipagarriak kontuan izanik (Barne erregelek, 6.1 eta 6,2).*

- Urgazleen eginkizunei dagokienez honako hauek gogoratzen dira: *Erakundearen helburuak betetzen laguntzea. Nork bere alorrean euskara sustatzea eta lantzea. Dagokion heinean eta berariaz ezarritako bideetatik, Euskaltzaindiaren lanetan esku hartzea, dela batzordeetan parte hartuz, dela eska dakizkiokeen lanak egi-*

nez. -Argitalpenen ale bat Azkue Bibliotekari ematea (12. art.).

2. Euskaltzain motak:

Gorago, bide batez aipatu ditugu Euskaltzaindia osatzen duten pertsonen zenbait talde desberdinetan bilduta dihardutela. Uste dut interesgarria izango duzuela talde bakoitzaren berezitasunak aurrez aurre jartzea:

a) Euskaltzain osoak: Euskarari buruzko azken erabakia hartzeko ahalmena duten kideak dira. Euskaltzain oso bat hiltzen denean nahiz ‘emeritu’ izatera iragaten denean auke-ratuak dira. Hutsik geratu den aulkia betetzeko hiru euskaltzain osok aurkeztu behar dute hautagaia, beraren merezi-menduak aditzera eman. Hautagaiari buruzko merezimen-du-agiriak aldi batean euskaltzain osoen esku izan ondoren, osoko bilkurak gehiengoz onartu behar du euskaltzain berria. Hala gertatzen ez denean deialdi berri bat egiten da.

b) Euskaltzain emerituak: Gorago aipatu den bezala, 2005ean sortu zuen mota berri hau Euskaltzaindiak. Euskaltzain osoak izaten jarraitzen dute, baina, muga batzuk dituztela. Euskaltzain osoa 75 urte betetzean ‘emeritu’ izatera iragaten da, eta ordezkoa izendatzen zaio. Nahi izanez gero, edozein euskaltzain osok ‘emerituen’ taldera iragatea eska dezake 70 urte betetzean. Erakundeak onartzen badu, orde-zko euskaltzain oso bat izendatuko du. Euskaltzain emerituak ezingo du karguetan parte hartu ezta bozketarako ‘ahala’ eman beste euskaltzain oso bati bilera joaterik ez duenean.

c) Ohorezko euskaltzainak: Ohorezko euskaltzain euskararen alde lan handia egin duten pertsonak izendatzen dira, Euskal Herrikoak nahiz kanpokoak. Adineko pertsonak izan ohi dira, eta Euskaltzaindiak euskararen alde egindako lan hori aitortu eta eskertu nahi izaten die. Euskaltzaindiak age-

riko bileretara eta ekintzetara joateko aparteko deia egiten die begirune handia erakutsiz.

d) Euskaltzain urgazleak: Gorago esandakoaren arabera, euskaltzain urgazleak orobat euskalgintzan eta euskalaritzan ezagunak eta lan eginak dira eta euren egiteko nagusia Euskaltzaindiari bere lanak burutzen laguntzea da. Euskaltzaindiaren lan-eremuak ugariak izanik, ugariak dira baita ere urgazleak.

Euskaltzaindikoko kideen bereizgarriak azaldu ondoren, eskaini nahi izan dizuet J.A. Arana Martijak bere sarrera-hitzaldian aurkeztutako euskaltzain osoen koadroa. Orduetik hona izan dituen aldaketak ere bertaratu dira.

Euskaltzain osoen aulkiek izandako banaketa (1918-2014)

3. Euskaltzainen lanari buruzko datu jakingarriak

Aurrera egin aurretik esan beharra dut euskaltzainek ez dutela soldatarik. Beraz, ez da ordaintzen kide bakoitzak etxean Erakundearentzat egiten duen lanik. Euskararekin hartutako konpromisoari lotutako zerbait da. Urtean zehar bederatzi/hamar osoko bilera izaten ditu. Gehienetan hileko azken ostiraldetan, eta Euskal Herri osoko lurraldeetan zehar banatuta. Bestelako bilera ere izaten dira aldika hor-hemenka euskara sustatzeko ekitaldietan, zenbait euskalariren mendeurrenak eta direla tarteko. Joan-etorriak, bazkaria eta eginiko orduko kopuru bat ordaintzen zaie bertaratutakoei.

Euskaltzain osoek batzordeetan nahiz lantaldeetan banatuta egin ohi dute lan, zenbait euskaltzain urgazle eta gainerako laguntzailerekin batera. Horietan parte hartzen dutenei ere joan-etorriak eta bilera-orduak ordaintzen zaizkie bakarrik. Gastuak gutxitzeko, bide-konferentzia erabiltzen ohi da taldekako bilera gehienetan. Ordezkaritzetako ardura dutenek 'gehigarri' bat jasotzen dute, zeregin horretan burutzen duten lan iraunkorraren truke.



Urgazle berriak, 2014

Horrez gain, langileak (bulegariak, kudeatzaileak, ekonomialariak, ikertzaileak...) ere baditu Euskaltzaindiak bulegoetan lanean. Horiei lan-hitzarmenen arabera ordaintzen zaizkie soldatak. Ikerlan bereziak egitea ere bideratzen du bere kontura edota beste erakunde batzuekin lankidetzan, Halakoetan hitzartutako kostuen arabera ordaindu ohi ditu burututako lanak.

Euskaltzaindiaren diru-iturriak, bestalde, zuek ongi daki-zuenenez, gehienbat herri erakundeetatik urteroko laguntzetatik jasotzen dituenak izan ohi dira. Ahalmen ekonomikoen arabera antolatzen dira urte bakoitzeko ikerketak eta jardunak.

4. Euskaltzaindiko euskaltzain urgazle berriak izendatzea



Gorago aipatutakoaren arabera, Euskaltzaindiak aldika-aldika euskaltzain urgazleak eta ohorezkoak izendatzen ditu. Horrela erabaki zuen joan zen urtean, bide batez, jardun horretan jarraitu beharreko urratsak aztertu eta adostuz. Oraingoan ere, azken urteetako ohiturari jarraituz jokatu du, hiru deialdi eginenez:



- *Lehen deialdiko euskaltzain urgazleak (2013)*. Lehen eta behin, azken urteotan Euskaltzaindiaren batzorde eta lantaldeetan lanean aritu izan diren kideen arteko batzuk euskaltzain urgazle izendatzea erabaki zuen.

Hain zuzen ere, bost urtetan zehar Euskaltzaindiko batzordeetan edota lantaldeetan lanean aritutakoak. Horrela, Euskaltzaindiari eskainitako lana eta erakutsitako atxikimendua jendaurrean aitortu nahi izan die.

- *Ohorezko euskaltzainak (2014)*. Badira, Euskaltzaindiaren lan-taldeetan aritutakoez gainera, bitzita osoan zehar eus-

kararen alde jardun izan duten pertsonak ere. Horiek ere ageriko aitormena merezi dute. Hori horrela, aurtengo maiatzeko osoko bileran zenbait ohorezko euskaltzain izendatuko ditu Euskaltzaindiak, euskararen alde egindako lan oparoa eskerrezko asmoz.

- *Bigarren deialdiko euskaltzain urgazleak (2014)*. Gorago esan bezala, Euskaltzaindiak bere lanetara erakarri nahi ditu euskaren munduan jo eta ke lanean ari direnen pertsonak. Horretarako, historian zehar behin eta berriro egin izan duen bezala, zenbait euskaltzain urgazle izendatuko ditu. Gorago aipaturiko arautegi eta barne erregeletan jasotakoari jarraituz, aurten bertan beste deialdi ireki bat egingo du euskaltzain urgazle berriak izendatzeko.



5. 2013an izendatutako urgazleei diplomak eta ikurrak banatzea

Lantxo honen iturburua, joan zen martxoaren 28an, ostira-lean, Bilboko Euskaltzaindiaren aretoan burutu zen egintza aipatzea eta bertan omenduak izan ziren batzuk gogora ekaritzea izan da. Hain zuzen ere, omendu batzuk KARMEL aldizkariarekin edota aldizkariko kideokin harreman estuak izan dituztelako. Guk aldizkari honetan lekutxo bat egin nahi izan diegu.

Euskaltzaindiak, martxoaren 28an Bilboko egoitzako aretoan burututako ekitaldian, 2013an izendatu zituen euskaltzain urgazleei diplomak eman zizkien. Honako hauek izan



Patxi Juaristi, urgazle berria, eta bere emaztea



Patxi Juaristi eta Karmel aldizkariaren zuzendaritza

ziren: Iñaki Aldekoa -ez zen ekitaldian izan-, Kaxildo Alkorta, Iñaki Amundarain, Nagore Etxebarria, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Antton Gurrutxaga, Patxi Juaristi, Gerardo Luzuriaga, Elena Martinez de Madina, Felix Mugurutza, Manu Ormazabal, Erramun Osa eta Iratxe Retolaza. Bilboko ekitaldietan izendapenaren ezaugarriak banatu zizkien.

Bertan batu ginen euskaltzain osoak, goizeko hileroko bilerari amaiera emanez. Bertan batu ziren hainbat euskaltzain urgazle eta ohorezko ere. Aretoa jendez beteta ageri zen bertaratu ginenean. Etxekoek eta lagunek ere, bidezkoa denez, beraien babesa eskaini nahi izan zien une pozgarri hartan euskaltzain urgazle berriei.



Dorleta Alberdi euskaltzain urgazle eta kazetariak egin zituen aurkezpen lanak, urgazle berriek diploma eta Euskaltzaindiaren ikurra jasotzerakoan. Ekitaldian zehar, musika izan zuten lagun bertaratutakoek. Izan ere, Pier Paul Berzaitz eta Joxan Goikoetxea musikariek hartu zuten parte omenaldian eta Nemesio Etxanizek, Piarres Topet “Etxahun”ek edota Xabier Letek idatzitako poema musikatuak interpretatu zituzten.

Hemen ekitaldi horretako argazki batzuk jaso nahi izan ditugu, omenduei gure zorionik beroenak opatuz.

Patxi Uribarren Leturiaga